Usurbilgo Udala

2025/01/14

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2025EKO URTARRILAREN 14AN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Iratxe Begiristain Otegi eta Ainhoa Arrozpide Landa.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Xabat Beloki Segurola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA:

### 1.1.- 2024KO ABENDUAREN 10EKO BILKURA.

Batzarkideek 2024ko abenduaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### 1.2.- 2024KO ABENDUAREN 20KO BILKURA.

Batzarkideek 2024ko abenduaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## 2.- OIARDO KIROLDEGIAN HARRERA ETA LAN ADMINISTRATIBO ZERBITZUA EMATEKO LIZITAZIOAN NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS SL ENPRESAK AURKEZTUTAKO ESKAINTZA IZENDATZEA ESKAINTZA ONENA (2024LIRZ0006).

**Ikusirik**

Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko irailaren 24an egindako ohiko bilkuran, Oiardo kiroldegian harrera eta lan administratibo zerbitzua kontratatzeko espedienteari onespena eman zion, prozedura ireki arruntaren bidez, iragarkia EBAOn eta udal Kontratazio Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko urriaren 31n amaitu zen eta hiru lizitatzaile aurkeztu ziren:

- NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS SL
- ATHLON SINTAGMIA SL
- BPXPORT XXI SL

2024ko azaroaren 12an kontratazio mahaia bilduta, A artxibo elektronikoak ireki ziren, hauen edukia ontzat eman zen eta B artxiboan jasotako memoriak kirol teknikariak aztertzea erabaki zen.

2024ko abenduaren 19an kirol teknikariak honako balorazioa aurkeztu zuen kontratazio mahaian eta ontzat eman zen:

| | Athlon Sintagmia SL | BPXport XXI SL | Neo Instalaciones Deportivas SL |
|---|---|---|---|
| B artxibo elektronikoan puntuazio totala | 26,95 puntu | 28,30 puntu | 36,80 puntu |

Bilkura berean C artxibo elektronikoa ireki zen eta honakoa da modu automatikoan baloratzeko irizpideen atalean jasotako proposamenen puntuaketa:

| | Athlon Sintagmia SL | BPXport XXI SL | Neo Instalaciones Deportivas SL |
|---|---|---|---|
| C artxibo elektronikoan puntuazio totala | 54,31 puntu | 54,79 puntu | 56,00 puntu |

Orotara, hauek dira proposamenek eskuratutako puntuak:

| | Athlon Sintagmia SL | BPXport XXI SL | Neo Instalaciones Deportivas SL |
|---|---|---|---|
| B+C | 81,26 puntu | 83,09 puntu | 92,80 puntu |

**Aplikagarria den legedia**

- Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Aurreko guztia eta kontratazio teknikariaren txostena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**

**LEHENA**: Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzen balorazioaren ondoren, hurrenkera hau onartzea eta Neo Instalaciones Deportivas SL aurkeztutakoa izendatzea eskaintza onena:

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Neo Instalaciones Deportivas SL | 92,80 puntu |
| 2 | BPXport XXI SL | 83,09 puntu |
| 3 | Athlon Sintagmia SL | 81,26 puntu |

**BIGARRENA**: Neo Instalaciones Deportivas S.L enpresari errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetako 9. klausulan zehazten diren agiriak eta dagokion behin betiko bermea (23.554,59 euro) aurkeztu ditzan.

**HIRUGARRENA**: ebazpen hau hiru lizitatzaileei jakinaraztea.

### 3.- ERMOTEGIAUNDI BASERRIA (SANTUENEA 33) ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2024OHAN0011).

CLAUDIA RIVERA BLAZQUEZ anderearen eta ASIER ZUBIRIA AYERBE jaunaren ordezkaritzan diharduen JUNTURA, KOOP. ELK. TXIKIA enpresako ANA ALMANDOZ FORCEN arkitektoak, Ermotegiaundi baserria (Santuenea 33) eraberritzeko udal baimena eskatu du.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---|---|
| Exekuzio materialeko aurrekontua: | **305.686,90 €** |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 380,02 € |
| | Fidantza (%120): 456,02 € |

KONTROL ARKEOLOGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak, 2024ko ekainaren 6an helarazi du Ermotegiaundi baserrian proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenaren jakinarazpena. Hitzez hitz honela dio:

**EB-KG-KU-2024-0232**

**2024ko ekainaren 26an Kultura Zuzendaritzak EBAZPENA eman du:**

**GAIA**: Kontrol arkeologikoa
**LEKUA**: Ermotegi Handi baserria
**HERRIA**: Usurbil
**INTERESDUNA**: Claudia Rivera Blázquez
**ZUZENDARIA**: Zohartze Galan Zumeta
**ERREGISTRO ZK**: 3.338 **ESPEDIENTE ZK**: 050/2024

Arkeolan Fundazioko Zohartze Galan Zumetak idatzi bat aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu honetako sarrera erregistroan goian aipatu interesadunaren izenean. Idatzi horretan baimena eskatzen da goian aipatzen den proiektua gauzatzeko Zohartze Galan Zumeta arkeologoaren zuzendaritzapean.

Horiguztia ikusirik dagokion txostena eman dute Departamentu honetako zerbitzu teknikoek, eta bertan diote ez dutela eragozpenik ikusten aurkeztutako proiektu arkeologikoa ontzat emateko.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, dituen eskumenak erabiliz, Kulturako zuzendari nagusiak, honako hau,

**EBATZI DU**

**Lehena**.- Interes Arkeologikoa aitortu aurkeztutako jarduketari, eta ondorioz baimena ematea Zohartze Galan Zumetari, Claudia Rivera Blázquez izenean jarduten duenari, goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko. Eta hala da Euskal Kultura Ondareko 6/2019 Legearen 66 artikuluak ezartzen duena betetzeko, zuzendaritza nagusi honen esku dagoen arloan, eta beti ere, jarraian aipatzen diren honako baldintza hauek betetzen badira:

- Lanen hasiera eta amaiera GFA-ko Departamentu honi jakinarazi beharko zaio. Hasiera astebeteko aurrerapenarekin gutxienez eta amaiera aste bete pasa ondoren gehienez.
- Baimen honi dagokion txostena paperean eta formatu informatikoan (Word, Pdf) aurkeztu beharko da bere garaian.
- Baimenaren titularrak berak zuzendu beharko ditu jarduera arkeologikoak eta jarduera horiek bertatik bertara ikusi beharko ditu.
  Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, titularrak jarduerak bertatik bertara zuzentzea ezinezkoa badu, horren berri eman beharko dio kasuan kasuko GFAko Departamentu honi eta bere erantzukizuna beste pertsona baten esku utzi beharko du, zeinak titularra ez dagoenean jardueren zuzendaritza bere gain hartzeko zenbait baldintza bete beharko baititu, titulazioari, gaitasun profesionalari eta behar besteko ezagutzari dagokienez.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen du berak egindako oroitidazki zientifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologia Artxiboan egon dadin baita ere Foru Aldundiaren Web orrian eskegita edonork kontsulta ahal dezan.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen dio GFA-ri Kultura Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu dion materiala zabalkunde lanetarako erabili ahal dezan. Nolanahi ere, argazkien egilea edo jatorria.

**Bigarrena**.- Arkeologi zundaketaren ondorioz aparteko aztarna arkeologikorik azalduz gero, berehala berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu honi, bidezko izanez gero, beharrezkoak suertatzen diren neurriak hartu ditzan.

**Hirugarrena**.- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabekoa da, eta ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, ezta bere edukia aurreikusten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokete interesatuek Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki derirotzen beste edozein aurkez daiteke.

Kulturako zuzendari nagusia

KANTAURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN EBAZPENA

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak obrak baimenduz honako ebazpena eman du 2024ko abenduaren 3an:

A/20/03583
AO-G-2024-0356
EG/ap

**R E S O L U C I Ó N**

**Expediente de autorización de obras para la rehabilitación de un caserío en zona de policía de la margen izquierda del río Oria y de la regata Gaztañaga, en Santu Enea Auzoa 33 del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa)**
**SIA: 206499**
**PETICIONARIO: Claudia Rivera Blázquez**

En relación con el expediente arriba indicado, esta Confederación Hidrográfica del Cantábrico, a propuesta de la Agencia Vasca del Agua, dicta la siguiente resolución:

**I.- ANTECEDENTES DE HECHO**

1º.- Con fecha 30/07/2024, Claudia Rivera Blázquez presentó en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la citada Agencia Vasca del Agua, solicitud de autorización de obras para la rehabilitación de un caserío en zona de policía de la margen izquierda del río Oria y de la regata Gaztañaga, en Santu Enea Auzoa 33 del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), acompañada de la preceptiva documentación.

2º.- El 07/08/2024 se remitió comunicación de inicio de expediente al peticionario acusando recibo de la solicitud.

3º.- Se comunica la petición al Ayuntamiento de Usurbil, a los efectos del posible otorgamiento de la correspondiente licencia de obras.

4º.- Dada la naturaleza y circunstancias de dichas obras se omite realizar el trámite de información pública.

5º.- La Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua, en fecha 04/11/2024, emite informe técnico, previa visita de confrontación al terreno, siendo favorable a la autorización solicitada.

6º.- Con fecha 07/11/2024 tiene entrada en esta Confederación Hidrográfica del Cantábrico la Propuesta de Resolución formulada por la Agencia Vasca del Agua.

7º.- Consta en el expediente informe favorable de esta Confederación Hidrográfica en el que se indica que las obras consisten fundamentalmente en la reforma de la fachada y sustitución de cubierta, sin que esto suponga un aumento del volumen ni altura del edificio. Así mismo, se plantea la ampliación de uno de los vanos. El edificio a rehabilitar se encuentra adosado al existente, por lo que las aguas residuales generadas en el mismo se encuentran ya conectadas al saneamiento municipal.

Las actuaciones propuestas se localizan en zona de policía del río Oria y de la regata Gaztañaga, que en esta área drenan una cuenca vertiente de 857 y 0,5 km2 de superficie respectivamente.

Según propuesta suscrita el 06/11/2024 por el Director de Gestión del Dominio Público de la Agencia Vasca del Agua, la zona de actuación se encuentra fuera de las manchas de inundación de ambos cauces.

El ámbito de actuación no se localiza en ningún Área con Riesgo Potencial Significativo de Inundación (ARPSI).

## II.- FUNDAMENTOS DE DERECHO

### A).- DE ORDEN JURÍDICO-FORMAL

1º.- Por Convenio de 18 de abril de 2024 entre el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, las Confederaciones Hidrográficas del Cantábrico, O.A. y del Ebro, O.A. y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, se encomiendan diversas actividades en materia de dominio público hidráulico en las cuencas intercomunitarias del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con la facultad que se recoge en el artículo 17 d) de la Ley de Aguas (Texto Refundido aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio; BOE de 24 de julio), y en el artículo 53 y concordantes del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico y sus posteriores modificaciones.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 30 de la citada Ley de Aguas, en relación con el artículo 33 del Real Decreto 927/1988, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Administración Pública del Agua y de la Planificación Hidrológica, le corresponde a la Presidencia del Organismo de Cuenca Confederación Hidrográfica del Cantábrico, O.A. dictar la presente resolución.

### B). - DE ORDEN JURIDICO-MATERIAL

1º.- La autorización de obras solicitada comporta la utilización de la zona de policía de cauces del **río Oria y de la regata Gaztañaga**, vertiente a la cuenca interautonómica del río Oria, en la forma prevenida en los artículos 9, 52 a 54, 78 y concordantes del citado Reglamento del Dominio Público Hidráulico y por el Real Decreto 35/2023 de 24 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las Demarcaciones Hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las Demarcaciones Hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro, (BOE de 10 de febrero).

2º.- En la presente petición concurren los presupuestos y requisitos contenidos en los preceptos normativos citados, por lo que teniendo en cuenta el interés público y los criterios contenidos en la propuesta emitida, procede otorgar la autorización solicitada.

De acuerdo con los fundamentos de hecho y de derecho precedentes y vistas las disposiciones normativas citadas, y las demás de general y especial aplicación, **se resuelve lo siguiente**:

Autorizar a **Claudia Rivera Blázquez**, con N.I.F./C.I.F. nº. , la ejecución de las obras de rehabilitación de un caserío en zona de policía de la margen izquierda del río Oria y de la

regata Gaztañaga, en Santu Enea Auzoa 33 del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), que se corresponde con los siguientes datos de situación:

- DEMARCACIÓN: Cantábrico Oriental
- SISTEMA DE EXPLOTACIÓN: Oria
- CÓDIGO Y NOMBRE DE LA MASA SUPERFICIAL: ES028MAR002662 - Río Oria VI
- NOMBRE DE LA CORRIENTE AFECTADA: Río Oria
- MARGEN EN CAUCE REAL: izquierda
- NOMBRE DE LA CORRIENTE AFECTADA: Regata Gaztañaga
- MARGEN EN CAUCE REAL: izquierda
- NOMBRE Y CODIGO DEL RIO DE CONFLUENCIA: ORIA-1/0400
- COORDENADAS U.T.M ETRS89: EN EL HUSO 30 : X= 576667 Y = 4790699 Z = 15
- TÉRMINO MUNICIPAL Y PROVINCIA: Usurbil (Gipuzkoa)

La autorización queda condicionada al cumplimiento de las condiciones exigidas para las de su naturaleza por la Ley de Aguas, las disposiciones que la desarrollan y demás de general aplicación y, en particular de las siguientes:

**DE CARÁCTER GENERAL**

1ª.- La presente autorización no implica la cesión del dominio público ni de las facultades dominicales del Estado y se otorga con sujeción a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Aguas y en el Reglamento del Dominio Público Hidráulico, dejando a salvo los derechos particulares y sin perjuicio de tercero, con la obligación de ejecutar las obras necesarias para conservar o sustituir las servidumbres existentes.

2ª.- La Administración Hidráulica conservará en todo momento las facultades de tutela y policía sobre el dominio público hidráulico y sus zonas de servidumbre y policía, quedando obligado el titular de la autorización a informar a este Organismo de cuenca de la terminación de las actuaciones a los efectos procedentes y de las incidencias que se produzcan, así como a cumplir las instrucciones que dicte éste.

3ª.- El otorgamiento de esta autorización no exime a su titular de obtener otros permisos o autorizaciones que pudieran ser necesarios para la ejecución de las obras o el ejercicio de la actividad.

4ª.- Podrá ser revocada esta autorización por incumplimiento de cualquiera de las condiciones y en los casos previstos en las Leyes, declarándose la revocación por resolución motivada de la Administración Hidráulica. El incumplimiento podrá dar lugar, si procede, a la incoación del correspondiente expediente sancionador de acuerdo con lo establecido en el artículo 116.3 c) del Real Decreto Legislativo 1/2001 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Aguas.

5ª.- Las actuaciones autorizadas se ejecutarán de acuerdo con los documentos presentados que obran en el expediente, con las modificaciones que resultan de las condiciones de la autorización. Toda modificación de las características de la presente autorización requerirá aprobación administrativa previa.

6ª.- Debe evitarse todo enturbiamiento de las aguas del río durante la actuación, no debiendo arrojarse al mismo los materiales de desecho, ni depositarlos en sus márgenes, dejando expedita la zona de servidumbre de uso público, esto último sin perjuicio de que en el condicionado particular se autoricen depósitos temporales, u ocupaciones de la zona de servidumbre. Al finalizar la actividad, incluso en caso de finalización anticipada, deberá

dejarse al cauce en condiciones ambientales y de desagüe adecuadas, pudiendo el Organismo de cuenca adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento de esta obligación.

7ª.- El titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que puedan causar las actuaciones autorizadas, quedando obligado a conservar y mantener en su caso las obras realizadas, y siendo asimismo responsable de las consecuencias que de la mala ejecución de las mismas se pudieran derivar.

8ª.- Esta autorización puede generar la obligación de pago del canon de ocupación y aprovechamiento del dominio público hidráulico establecido en el artículo 112 del texto Refundido de la Ley de Aguas, que será fijado, en su caso, en las condiciones particulares.

9ª.- Esta autorización estará sujeta al límite temporal que se determine en las condiciones particulares, trascurrido el cual carecerá de vigencia. El interesado podrá solicitar prórroga de la misma antes de su finalización, motivando la petición. Esta prórroga podrá otorgarse por un periodo nunca superior al inicial, teniendo en cuenta que el plazo máximo de vigencia, incluidas las prórrogas será de cuatro años. Cualquier actuación que se pretenda una vez transcurrido el plazo de la autorización, o el de sus prórrogas, exigirá la tramitación de una nueva solicitud.

10ª.- Este título no amparará la ocupación, utilización o aprovechamiento del dominio público hidráulico por un periodo superior a setenta y cinco años, pudiendo las condiciones particulares establecer otro inferior.

**DE CARÁCTER PARTICULAR**

1ª.- Las obras se ajustarán a la documentación presentada, en tanto no sean modificadas por las condiciones de la autorización.

2ª.- Se mantendrán las franjas de servidumbre de 5 metros del cauce en estado natural y libres, balizándolas con cinta señalizadora, para impedir el trasiego de vehículos, acopio de materiales o rellenos, casetas o recipientes, cierres, arquetas, etc. en dicha zona, sean provisionales o definitivas.

3ª.- Las obras deberán estar finalizadas en el plazo de 24 MESES, contados a partir de la notificación de la resolución, notificando por escrito la terminación de las mismas para realizar el acta de reconocimiento final, si procede. Si las obras no se llevaran a cabo dentro de dicho periodo se podrá solicitar una prórroga antes de la finalización del plazo otorgado, indicando los motivos por los que no se han podido realizar las obras, las actuaciones que restan y el plazo estimado de finalización de las mismas.

4ª.- Se respetará la vegetación natural existente en las márgenes y una vez finalizadas las obras se llevará a cabo la revegetación de las zonas afectadas con vegetación autóctona de ribera.

5ª.- Con motivo de las obras no se permitirá ningún tipo de vertido, escombros, restos de obra, etc. al río o zona de ribera, debiendo gestionar los materiales sobrantes mediante gestor autorizado.

6ª.- Se avisará telefónicamente al personal de inspección de aguas de la Agencia Vasca del Agua (tel.: 94S 011 700) previo al comienzo de las obras.

7ª.- Al amparo de la presente autorización no podrán efectuarse la captación de aguas del cauce, ni el vertido de residuales al mismo, ni el aprovechamiento de los bienes situados en los cauces, sin la previa autorización administrativa.

**Contra la presente resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Presidenta de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Asturias. Los plazos de interposición de ambos recursos serán, respectivamente, de UN MES y DOS MESES a contar desde el día siguiente de la notificación de la resolución.**

**En el caso de tratarse de Administraciones Públicas, éstas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante el Tribunal Superior de Justicia de Asturias, sin perjuicio de poder efectuar el requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.**

LA PRESIDENTA
P.D. LA COMISARIA DE AGUAS
(Resolución de 13/09/2017, B.O.E. de 09/10/2017) Ana María Arenas López
(Firmado electrónicamente: 2024-12-03)

## TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua eta espedienteko gainontzeko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2024ko abenduaren 19an honako ALDEKO txostena eman du hitzez hitz:

**60_2024OHAN011**

**BULEGO TEKNIKOA**
**Udal Teknikariak Alkate andreari**
**OBRA HANDIAK**
**ERMOTEGIAUNDI BASERRIA (SANTUENEA 33) ERABERRITZEKO OBRA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Ana Almandoz Forcen
ESKAERA: Ermotegiaundi baserria (Santuenea 33) eraberritzeko obra baimena
ESKAERA DATA: 2024-07-18
KOKAPENA: Santuenea 33, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2024-OHAN-011 (HZ.04/2024-223)
AURREKONTUA (PEM): 305.686,90 euro
HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 380,02 euro FIDANTZA (%120): 456,02 euro

2024ko abenduaren 9an URA agentziak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren ebazpenaren jakinarazpena igorri du.

**AURREKARIAK**

2024ko uztailaren 18an, Ana Almandoz Forcenek Ermotegiaundi baserria (Santuenea 33) eraberritzeko obra baimena eskatu zuen.
2024ko uztailaren 19an Claudia Rivera Blazquezek Ermotegiaundi baserrian esku-hartze arkeologikoa egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura zuzendaritzan egindako eskaerari buruzko ebazpena jaso da udalean, zeinak *interes Arkeologikoa aitortzen dion aurkeztutako*

*jarduketari, eta ondorioz Zohartze Galan Zumetari eta bere izenean Claudia Rivera Blazquezi baimena ematen dio Ermotegiaundi baserrian proiektu arkeologikoa gauzatzeko, beti ere, ebazpenean ezarritako baldintzetan.*
2024ko urriaren 22an udal arkitektoaren txostena. Bertan, Ermotegiaundi baserria birgaitzeko obra baimenari aldeko txostena idazteko aurrez **URA agentziaren baimena** eskuratu beharko dela adierazten zen.

**Erlazionatua:**
2023HBES030: Ermotegiaundi baserriaren (Santuenea 33) inguruko informazio eskaera

**TXOSTENA**

Aurrekarietan esan bezala, URA agentziak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren ebazpenaren jakinarazpena igorri du. Bertan adierazten denez, baimena ematen dio Claudia Rivera Blazquezi Oria ibaiaren zaintza eremuan kokatuta dagoen Ermotegiaundi baserria eraberritzeko. Betiere, ebazpenean jasotzen diren baldintzapean.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honako hau esan daiteke:

TXOSTEN TEKNIKOAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA: URA agentziak igorri berri duen baimenarekin betetzat ematen da urriaren 22ko txosten teknikoan ezarritako baldintza. Beraz, obra baimena ematea bidezkoa dela esan behar da. Dena den, kontuan izan beharko dira aipatu txostenean adierazitako gainontzeko baldintzatzaileak:

- Ohartarazten da Udalak zurezko kanpo arotzeria lehenesten duela.
- Egin beharreko lur mugimenduetan belarra erein beharko da inpaktu bisuala gutxitzeko.
- Esku-hartze arkeologikoa egiterakoan, ezinbestean Foru Aldundiaren baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

EXEKUZIO PROIEKTUA: Obra hasi baino lehen teknikari gaituak izenpetutako eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da Udalak oniritzia eman diezaion.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 380,02 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (456,02 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.

ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.

OBRA BAIMENAREN EPEAK:

- Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete

- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

OBRA AMAIERA: Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*
- *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
- *Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.*
- *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.*
- *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.*

**ONDORIOA**

Goian esandakoa kontuan izanik, Ermotegiaundi baserria birgaitzeko proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio eta OBRA BAIMENA ematea proposatzen da honako baldintza hauen pean:

Baldintza orokorrak:

Obra hasi baino lehen:
- Teknikari gaituak izenpetutako eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da
- Hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da (456,02euro).
- Zuinketa akta izenpetu beharko da.

Obra baimenaren epeak:
- Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa:
- Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
- Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
- Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
- Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.

Baldintza partikularrak:
- Ohartarazten da Udalak zurezko kanpo arotzeria lehenesten duela.
- Egin beharreko lur mugimenduetan belarra erein beharko da inpaktu bisuala

gutxitzeko.

- Esku-hartze arkeologikoa egiterakoan, ezinbestean Foru Aldundiaren baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- URA agentziak igorritako Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren ebazpenean jasotako baldintzak bete beharko dira.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.
Udal arkitektoa

Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**

**LEHENDABIZI***:* CLAUDIA RIVERA BLAZQUEZ andereari eta ASIER ZUBIRIA AYERBE jaunari, Ermotegiaundi baserria (Santuenea 33) eraberritzeko udal baimena udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- JUNTURA kooperatibako Michela Lamedica, Gorka Segurola Dorronsoro, Ana Almandoz Forcén, Nagore Goñi Arana eta Edurne Izagirre Elizaran arkitektoek 2024ko uztailean idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- **Obrak hasi aurretik**, teknikari gaituek izenpetutako eta elkargo ofizialak ikus onetsitako **Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da udalaren oniritzia jaso dezan.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

  Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 380,02 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (456,02 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

  **456,02 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2024-OHAN-0011"* jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik,** obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu

beharko da. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- Baldintza partikularrak:

  - Ohartarazten da Udalak zurezko kanpo arotzeria lehenesten duela.
  - Egin beharreko lur mugimenduetan belarra erein beharko da inpaktu bisuala gutxitzeko.
  - Esku-hartze arkeologikoa egiterakoan, ezinbestean Foru Aldundiaren baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
  - URA agentziak igorritako Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren ebazpenean jasotako baldintzak bete beharko dira.

- AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.

- Obra baimenaren epeak:

  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 12 hilabete.

- Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:

  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

  - ➢ Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - ➢ Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - ➢ Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - ➢ Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko

dira.

- Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA**: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaie.

**4.- ZUBIAURRENEA KALEA 1, ESK. 1. 2-A1 ETXEBIZITZA BITAN BEREIZTEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2024OHAN0017).**

ALOÑA ALKIZALETE URKOLA anderearen ordezkaritzan dihardüen JUAN IGNACIO SABADIE IGLESIAS jaunak, Zubiaurrenea kalea 1, ESK. 1. 2-A1 etxebizitza bitan bereizteko obretarako udal baimena eskatu du.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---|---|
| Exekuzio materialeko aurrekontua: | **125.035,76 €** |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 2.766,86 € |
| | Fidantza (%120): 3.320,23 € |

TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua eta espedienteko gainontzeko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2025eko urtarrilaren 2an honako ALDEKO txostena eman du hitzez hitz:

**01_2024OHAN0017**

**BULEGO TEKNIKOA**
**Udal Teknikariak Alkate andreari**
**OBRA HANDIAK**
**ZUBIAURRENEA KALEA 1, ESK. 1. 2-A1 ETXEBIZITZA BITAN BEREIZTEKO OBRA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Juantxo Sabadie Iglesias
ESKAERA: Zubiaurrenea kalea 1, esk 1. 2-A1 etxibizitza bitan bereizteko obra baimena
ESKAERA DATA: 2024-11-26
KOKAPENA: Zubiaurrenea 1, Usurbil.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2024-OHAN-0017
AURREKONTUA (PEM): 125.035,76 euro
HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 2.766,86 € FIDANTZA: 3.320,23 €

2024ko azaroaren 26an, Juantxo Sabadie Iglesiasek Zubiaurrenea kalea 1, esk 1. 2-A1 etxibizitza bitan bereizteko obra baimen eskaera egin zuen.

**Erlazionatuak:**

2024HKON0003: Zubiaurrenea kalea 1, esk 1. 2-A1 etxibizitza bitan bereizteko aukeraz

hirigintza galdera.

2024ko martxoaren 15ean, zera erantzun zitzaion, besteak bestea, interesdunari: *Segregazio baimena eskuratu ondoren, obra baimena izapidetu beharko da dagokion proiektu teknikoa aurkeztuz.* ***Ondoriozko etxebizitzen barne banaketak onargarriak izan daitezen, 80/2022 Dekretuak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete beharko dira, besteak beste.***

2024HBSE0002: Zubiaurrenea kalea 1, esk 1. 2-A1 etxibizitza bitan bereizteko baimena.

2024ko urriaren 1ean, 2024/1089 zenbakidun alkate dekretu bidez, aipatu etxebizitza bereizteko baimena eman zitzaion Aloña Alkizalete Urkolari.

**TXOSTENA**

Eskaera orrian adierazten denez, aipatu etxebizitza bitan bereizteko proiektua 2024ko uztailean aurkeztu zen, 2024HBSE0002 espedientearen baitan, beraz, dokumentu hura hartuko da erreferentziatzat. Dokumentuak barneratzen ditu: memoria, planoak, aurrekontua eta neurketak, segurtasun eta osasunari buruzko azterlana, hondakinen kudeaketa azterlana, kalitate kontroleko plana, baldintza pleguak, eta eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria. Guztia José Luis Queralt Luján arkitektoak izenpetua eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita dago (COAVN 2024-07-19).

Gaia aztertuta esan behar da:

DOKUMENTUAREN EDUKIA: Aurkeztutako dokumentazioak barneratzen ditu Exekuzio Proiektu bati dagozkionak. Teknikari gaituak izenpetua eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago, beraz, ontzat ematen da.

SEGREGAZIO BAIMENA: Esan bezala, 2024ko urriaren 1ean, 2024/1089 zenbakidun alkate dekretu bidez, aipatu etxebizitza bereizteko baimena eman zitzaion Aloña Alkizalete Urkolari. Bertan, baimenaren eraginkortasunaren inguruan honela adierazten zen:

*HIRUGARRENA: Baimenaren eragingarritasuna. Eskatzaileak, bereizketak baimendutako eran burutu direla ziurtatuz dagozkien eskrituren kopia baimendua aurkeztu beharko ditu, eta inskribatzeko ondorioetarako, Jabetzaren Erregistroan dokumentu horik aurkeztu direneko egiaztagiria. Baldintza hori bete bitartean, eskatutako bereizketa indargabe geratuko da.*

2024ko azaroaren 11n interesdunak aipatu agiriak aurkeztu zitun, beraz, segregazio baimenaren eraginkortasuna berresten da.

AASS-EK EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA: AASSetako 37. artikuluak honela dio etxebizitzen azpizatiketaren inguruan: *"Hiri-lurzoru Finkatuan dauden eraikuntzetan, erabateko eraberritze edo zatizko eraberritzeak egin daitezke, dauden etxebizitzen azpizatiketa baimentzen delarik. Etxebizitza tipologiakdibertsifikatzeko eta egungo estandarretara egokitzeko asmoz, etxebizitza berriek, 85 m2ko batez besteko azalera eraikia edo haundiagoa izan beharko dute.*

*Etxebizitza berrietarako sarbideak kokatzen diren eraikinaren barne zirkulazioko elementu komunen bitartez gauzatu beharko dira. Sarbidea hala gauzatzerik ez badago, sarbidea aurrean duen espazio ez eraikitik zuzenean egitea baimendu ahal izango da salbuespen gisa.*

*Etxebizitza berri bakoitzaren gutxienezko azalera erabilgarria ez da 60 m2 baino*

*gutxiagokoa izango."*

A etxebizitzak duen azalera erabilgarria 83,85 m2 da eta B etxebizitzarena 89,49 m2; hortaz, azalera minimoa betetzen dute. Gainera, biek dute sarbidea eraikinaren barne zirkulazioko elementu komunen bitartez. AASSek ezarritako baldintzak betetzen direla esan behar da.

BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA: Ondoriozko bi etxebizitzek indarrean diren Usurbilgo Arau Subisidiarioen Testu Bateraginaren 37. artikuluan finkatzen diren bizigarritasun baldintzak eta 80/2022 Dekretuak ezarritakoak bete beharko dituzte. Bizigarritasun baldintzak (80/2022 Dekretua) betetzearen justifikazioa aurkeztu da eta ontzat ematen da.

EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Orohar, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia betetzearen justifikazioa aurkeztu da (Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.) eta ontzat eman daitekeela esan behar da.

IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke.

LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA*:* Obraren egikaritzan zehar bitarteko laguntzaileren batek lurzoru publikoa okupatuko badu, dagokion baimena lortu beharko da.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.766,86 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (3.320,23 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.

OBRA BAIMENAREN EPEAK:

- Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

OBRA AMAIERA: Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:

- *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*

- *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
- *Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.*
- *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.*
- *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturiko ur hornidura instalakuntzaren ziurtagiria, Tentsio Baxuko Instalakuntzaren ziurtagiria eta instalazio termikoaren ziurtagiria.*
- *Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.*
- *Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren alta.*

**ONDORIOA**

Goian esandakoa jarraiki, Zubiaurrenea kalea 1, esk 1. 2-A1 etxibizitza bitan bereizteko proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio eta OBRA BAIMENA ematea proposatzen da.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe.

Usurbilen, sinaduraren datan
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI***:* ALOÑA ALKIZALETE URKOLA andereari, Zubiaurrenea kalea 1, ESK. 1. 2-A1 etxebizitza bitan bereizteko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- José Luis Queralt Luján arkitektoak 2024ko uztailean (COAVN 2024-07-19) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

  Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.766,86 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (3.320,23 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

  **3.320,23 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2024-OHAN-0017”* jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik,** obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA*:* Obraren egikaritzan zehar bitarteko laguntzaileren batek lurzoru publikoa okupatuko badu, dagokion baimena lortu beharko da.

- Obra baimenaren epeak:

  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 12 hilabete.

- Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:

  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturiko ur hornidura instalakuntzaren ziurtagiria, Tentsio Baxuko Instalakuntzaren ziurtagiria eta instalazio termikoaren ziurtagiria.
  - Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.
  - Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren alta.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA***:* Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaie.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**